

Espainiar estatuko unibertsitate kirol txapelketako "fase interzonal" delakoa jokatu zen Arrasate eta Eskoriatzan

2009/04/21

Martxoak 30etik apirilak 2ra bitartean jokatu zen Arrasate eta Eskoriatzako udal kiroldegietan txapelketa hau. Antolaketaren ardura zozketaz egokitzen da eta MUri egokitu zitzaionez estatuko beste 6 unibertsitateetako ikasleak etorri ziren gure inguruetara lau egun pasatzera. Partaideak honako unibertsitateetakoak ziren: U. La Laguna, U. de Valencia, U. Catolica San Antonio de Murcia, U. Ramón Llul, U. de Cordoba, U. de Navarra eta Mondragon Unibertsitatea.

Talde guztiek liga eran jokatu ondoren, U.C.A.M.-ek eta U. Ramón LLul-ek jokatu zuten finala. Murtziako taldeak garaipena eskuratzeaz gain Sanatanderren jokatu den Espainiako txapelketarako finalerako pasea lortu zuten.

Hemen egondako egunak oso ondo pasa zituzten, denen hitzetan, bertako jendearen izaera eta jarrera azpimarratzen zutelarik.

Mila esker denoi!

